

## Kurutzagana (-a)

(Kalea)

Algortan Oicosa taldeak eraikitako zenbait etxebizitza eta kale berrik ez zutenez izenik, *Zubilletas* (sic) kaletik hasita zeuden izen gabeko kaleei *Lañomendi*, *Kurutzagana* eta *Kuskuburu* izenak ipintzea erabaki zuen Gobernuko Batzordeak 1977an. Geroago, 1999an, kale honi emandako izena berraztertu eta *Kurutxegane* era ofizialdu zuten. Azken izen hau desegokia da bi arrazoiengatik. Batetik, *-tx-* ahoskatzea erdarari dagokio (*ch*) eta ez euskarari. Konparaziorako, Berangoko *Kurtze* auzoaz aritzeko erdaldunek *Kurtxes* ohi darabilte. Bigarrenik, amaierako *-e* ahozko jardueran egokia bada ere, ez da gomendagarria toponimoetan eta, are gutxiago, neotoponimoetan. Getxoko kale izendegia aztertzean Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak *Kurutzegana* izena berretsi zuen. Osagaiak *kurutze*, *gurutze* izenaren mendebaldeko aldaera, *gan* "gain" eta artikulua dira. *Kurutzegana* izenak segur aski Galdakao, Larrabetzu eta Zornotza elkartzen diren puntuan dagoen eta 326 metro dituen *Arrizuriaga* mendixkari egiten dio erreferentzia, gailurrean *gurutze* bat duela-eta zenbaitek izen hura ematen diotelako.

En Algorta, como varias viviendas y calles nuevas construidas por el grupo Oicosa no tenían nombre, la Comisión de Gobierno decidió en 1977 poner los nombres *Lañomendi*, *Kurutzagana* y *Kuskuburu* a las calles sin nombre que comenzaban en la calle *Zubilletas* (sic). Más tarde, en 1999, se volvió a analizar el nombre dado a esta calle y se oficializó la forma *Kurutxegane*. Este último nombre es inadecuado por dos razones. Por un lado, la pronunciación *-tx-* corresponde al castellano (*ch*) y no al euskera. Como ejemplo, para hablar sobre el barrio *Kurtze* de Berango los castellanoparlantes utilizan *Kurtxes*. Por otro lado, aunque la *-e* final sea adecuada oralmente, no es conveniente en los topónimos y mucho menos en los neotopónimos. Al analizar el callejero de Getxo la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia confirmó el nombre *Kurutzegana*. Los elementos son *kurutze*, la variante occidental del nombre *gurutze*, *gan* "gain" (sobre) y el artículo. Seguramente el nombre *Kurutzegana* hace referencia al pequeño montículo llamado *Arrizuriaga* de 326 metros situado en el punto donde se juntan Galdakao, Larrabetzu y Zornotza, ya que algunos le llaman así por la cruz que tiene en la cumbre.

## Kuskuburu

(Kalea)

Algortan *Oicosa* taldeak eraikitako zenbait etxebizitza eta kale berrik ez zutenez izenik, *Zubilletas* (sic) kaletik abiatuta izenik gabeko kaleei, *Lañomendi*, *Kurutzagana* eta *Kuskuburu* izenak ipintzea erabaki zuen Gobernuko Batzordeak 1977an. Kuskuburu Ganguren mendilerroan dagoen gailur xume bat da, 423 metrokoa, Galdakao eta Lezamako mugan. Izen egokia *Kukuzburu* da, osagaiak *kukutza* eta *buru* baitira, baina Patxi Galek argitu zuen bezala XX. mendean *Kuskuburu* idazkera zabaldu zen Bizkaiko Aurrezki Kutxak egindako Bizkaiko mapa bikainean ageri zen huts tipografikoa zela medio.

En Algorta, como varias viviendas y calles nuevas construidas por el grupo Oicosa no tenían nombre, la Comisión de Gobierno decidió en 1977 poner los nombres *Lañomendi*, *Kurutzagana* y *Kuskuburu* a las calles sin nombre que comenzaban en la calle *Zubilletas* (sic). Kuskuburu es una pequeña cima de 423 metros en la sierra de Ganguren, en el límite de Galdakao y Lezama. La grafía correcta de este nombre formado por *kukutza* y *buru* es *Kukuzburu*, pero tal y como explica Patxi Galé la forma *Kuskuburu* se extendió por un *lapsus* tipográfico del excelente mapa de Bizkaia que editó la Caja de Ahorros Vizcaína.



**Kurkudialde eta Esumagatxu**

argazkia: Mikel Gorrotxategi

## Labeasimonena (-a)

(Etxebizitza/ Vivienda)

San Nikolas kalean kokaturiko etxea. Izenaren ibilbidea interesgarria da oso. Aipurik zaharrenetan (1621) *Labea* izen soilaz izendatzen dute eta horren esangura gardena da, *labe* hitz arrunta eta artikulua. Baina XVIII. mendetik aurrerako aipuetan *Simonena* gehitu zitzaion. Bitxia da 1873ko aipuan dioena: “*la citada casa Simonena, conocida hoy con la adicción de Labea*” (aipatutako *Simonena* etxea, gaur egun *Labea* gehituta ezagutzen dena), aurreko mendean kontrakoa esaten baitzen: *Casa de Labea alias Simonena del barrio de Algorta (1760)*. *Simonena* izenaren egitura ohikoa da, *Simon* izena + *-ena* atzizkia. Gehiketa honen arrazoia argitasuna izan daiteke, *Labea* aski arrunta izan zitekeelako. Azkenik, XIX. mendean erdal joskera nagusitu zen eta *Simonena-Labea* bihurtu. Bere lurren artean *Iturribarri* izenekoa zegoen.

Casa situada en la calle San Nikolas. La evolución del nombre es muy interesante. En las menciones más antiguas (1621) aparece el nombre *Labea* y su significado es claro, el nombre común *labe* (horno) y el artículo. Pero en las menciones a partir del siglo XVIII se le añadió *Simonena*. Es curioso lo que dice la mención de 1873: “*la citada casa Simonena, conocida hoy con la adicción de Labea*”, ya que en el siglo anterior se decía lo contrario: *Casa de Labea alias Simonena del barrio de Algorta (1760)*. La estructura del nombre *Simonena* es habitual, el nombre *Simon* + la preposición *-ena*. La razón de esta adición puede ser querer conseguir mayor claridad, porque *Labea* podía ser bastante común. Por último, en el siglo XIX se extendió la sintaxis del castellano y se convirtió en *Simonena-Labea*. Entre sus tierras estaba la llamada *Iturribarri*.

## Lamiako

(Fadura/ Marisma)

Gaur egun jende askorentzat Lamiako Leioako auzoa bada ere, izatez Getxoko zatia ere bada eta gaur egun Santa Ana basiliza dagoen ingurua Lamiakoko zatia da. Inguru hori hiritartzeak izenak bereiztea ekarri zuen, jatorrizko Lamiako zokoratuz. XIX. mendearen amaieran esnea eta ortuariak ekoizteko etxaldea sortu zuen M. Agirrek, baina hil zenean familiak *Viuda de Máximo Aguirre e hijos* elkarteak sortu eta kiroldegia eraiki zuen, zalditegia, futbol-zelaia eta poloan aritzeko zelaia eta abarrek. XX. mendearen hasieran aireportu moduan erabili zen eta lehenengo lurrartzea 1914ko urrian egin zuen Juan Pombo Ibarrak.

Gerra hasi zenean Euzko Jaurlearitzak abioiak bidali zituen bertara, lehenengo eta behin ingeles bolondresak gidatutako Bristol Bull-Dog zaharrak. Geroago Gregori Tjor-en aginduetara zegoen errusoen eskudrila bi egon ziren I-15 abioiekin, tartean emakume bat. Ez dugu lortu jakiten zein ote zen emakume hori, seguru asko itzultzailea, baina ez da harrigarria izan behar pilotu errusoen artean emakumeak egotea. 1938an Marina Raskova-ren aginduetara hiru emakumez osatutako hegaldiak munduko hegaldi errekorra hautsi baitzuen. Emakume horien bizitza ez zen goxoa izan, baina ez zuten etsi eta lortu zuten haien ametsa betetzea, askok bizitza eman bazuten ere. 2. Mundu Gerran emakumez osatutako eskoadriak izan zituzten errusoen artean talderik garrantzitsuenak Gaueko Bonbardeaketaren 588. erregimentua izan zen. Alemanek *nachthexen* “gaueko sorginak” deitzen zieten eta 24.000 aldiz atera ziren.

Errusoak joan zirenean Gloriosak, Errepublikaren Aire Armadak, hartu zuen lekua Felipe del Ríoren aginduetara. Lamiako gainean borrokatu eta hil zen aipatutako pilotua 1937ko apirilaren 22an. Ez dago legalitatea eta askatasunaren alde bizitza eman zuen pilotu honen izena oroitzen duen ez harririk ez kale izenik, baina berriz soldadu hauek ekidin nahi izan zituzten etsaien bonbardeaketak gogoratzen dituzten getxoztarrek. Goian Bego betiko hegaldian.

A pesar de que para mucha gente Lamiako sea un barrio de Leioa, es también una parte de Getxo y la zona donde actualmente está la ermita Santa Ana es parte de Lamiako, pero al urbanizar la zona hubo que diferenciar los nombres, y se dejó a un lado el nombre Lamiako. A finales del siglo XIX M. Agirre creó una hacienda para producir leche y hortalizas, pero cuando murió la familia creó la asociación *Viuda de Máximo Aguirre e hijos* y construyó el polideportivo con caballerizas, campo de fútbol, un campo para jugar al polo, etcétera. A principios del siglo XX se utilizó como aeropuerto y Juan Pombo Ibarra fue el primero en aterrizar en ese lugar en octubre de 1914.

Cuando comenzó la guerra, el Gobierno Vasco envió aviones a ese lugar, en primer lugar los viejos Bristol Bull-Dog dirigidos por voluntarios ingleses. Más tarde estuvieron dos escuadrillas rusas bajo el mando de Gregori Tjor, con aviones I-15 y entre ellos una mujer. No hemos conseguido saber quién era esa mujer, que según parece no era piloto sino traductora. Aun así, no debe extrañarnos la presencia de la mujer en la aviación rusa, pues en 1938 el vuelo compuesto por tres mujeres al mando de Marina Raskova batió el record mundial de vuelo. La vida

de esas mujeres no fue fácil, pero no desistieron y consiguieron cumplir sus sueños, a pesar de que algunas dieron la vida en ello. En la Segunda Guerra Mundial los rusos tuvieron escuadrillas formadas por mujeres, el más conocido fue el regimiento 588 del Bombardeo Nocturno, llamado por los alemanes *nachthexen* "las brujas de la noche" que volaron 24.000 veces.

Cuando los rusos se marcharon, la Gloriosa, esto es la Aviación del Gobierno constitucional tomó el mando del aeropuerto. Felipe del Río al mando de la escuadrillas luchó y murió sobre los cielos de Lamiako el 22 de abril de 1937. No hay placas y nombres de calles que recuerden a este piloto muerto en defensa de la legalidad y por la Libertad, pero todavía hay mucha gente en Getxo que recuerda los bombardeos del enemigo, bombardeos que quisieron evitar estos soldados. Que su alma vuele en paz.

## Landa

(Etxea eta ingurua/ Casa y zona)

Abasota kaleko 12. zenbakian zegoen etxea, Francisco Aldekoa Uriarte jaunaren bizitokia. Izena bertako toponimotik hartu zuen, Abasota haitzaren gaineko landatik, inoiz "la *campa de la Landa*" moduan ageri dena. Gaur egun bere orubean dagoen etxea Carlos Saldaña arkitektoak eraiki zuen 1960an eta *Landa* izena gorde du. Landa zen etxe hau eta Pitarrena aurrean zegoen gunea, liburua idazten ari ginela asfaltoak erabat estali zuena. Alangon ere bazegoen izen hau Konporte eta Martikoena kaleak elkartzen diren gunea izendatzeko.

Casa del número 12 de la calle Abasota, residencia del señor Francisco Aldekoa Uriarte. El nombre lo tomó del topónimo del lugar, de la *campa* que estaba sobre la roca Abasota, que aparece alguna vez como "la *campa de la Landa*". La casa que hay actualmente en ese solar fue construida por el arquitecto Carlos Saldaña en 1960 y ha guardado el nombre *Landa*. Landa era la zona situada entre esta casa Pitarrena, que fue cubierta de asfalto mientras escribíamos este libro. También en Alango se usaba este nombre para designar la zona donde se juntaban las calles Konporte y Martikoena.

## Landazarreta

(Soroa/ Huerta)

Behin baino ez dugu aurkitu izen hau, 1629an. Aipuan ageri den -c hori (Landa carreta) bere garaian idatzi zuen eskribauaren akatsa izan zela ematen du, aurreko agiri batetik kopiatzean -ç- idatzi beharrean -c idatzi baitzukeen.

Sólo hemos encontrado este nombre una vez, en 1629. La -c que aparece en la mención (Landa carreta) puede ser un error del escribano de la época, que al copiar la -ç- de un documento anterior escribió -c.

## Landena (-a)

(Etxebizitza eta kalea/ Vivienda y calle)

Gazteluzarreko etxe honen izenaren osagaiak *landa* deitura eta *-ena* atzizkiak dira. Etxea desagertzean izen hori eman zioten bertan eraiki zen kaleari. Ahoz *Landene* esaten zitzaion, Getxon ohi bezala kale izenean ikus daitekeen bezala.

Los elementos de esta casa de Gazteluzar son el apellido *landa* y la preposición *-ena*. Cuando desapareció la casa le pusieron ese nombre a la calle que se construyó en el lugar. Oralmente se le decía *Landene*, como era habitual en Getxo y ha quedado reflejado en la calle Landene.

## Lañalangoena (-a)

(Kalea)

1959an Viviendas de Vizcaya erakundeak udal batzordeari plano bat bidali zion, Billamonte aldean egiten ari ziren auzo berria erakusteko eta aldi berean, kale berrien izenak ipintzeko. Hau da kale berri horien artean zegoen bat. *Lañalangoena*, Algortako geltokitik hurbil, egingo zen trenbidearen azpiko pasagunean hasi eta *Billamonte* kalearen goiko aldetik *Iturribarrira* zihoan kalea da. Udal batzordeak ez zuen ontzat eman eta gaur egun *Arene* kalea da.

En 1959 Viviendas de Vizcaya mandó un plano a la Comisión Municipal, para mostrar el nuevo barrio que estaban haciendo en la zona de Billamonte y para poner nombres a las nuevas calles. Ésta es una de las calles que

estaban entre las nuevas. *Lañalanguena* era una calle que comenzaba en el paso de debajo de las vías del tren cerca de la estación de Algorta y pasando por la parte de arriba de la calle *Billamonte* llegaba a *Iturribarri*. La Comisión Municipal no lo aprobó y actualmente se llama calle *Arene*.

## Lañamendi

(Kalea)

Algortan Oicosa taldeak eraiki zituen zenbait etxebizitza eta kale berrik ez zutenez izenik, *Zubilletas* (sic) kaletik abiatuta izenik gabeko kaleei, *Lañomendi*, *Kurutzagana* eta *Kuskuburu* izenak ipintzea erabaki zuen Gobernuko Batzordeak 1977an. Loiuun bada *Lañamendi* izeneko mendi bat ahoz *Lañomendi* deitu izan dena, seguru asko herri-etimologia dela medio. Izena ez dator *laino* hitzetik, *Laina* baserri izenetik baizik.

En Algorta, como varias viviendas y calles nuevas construidas por el grupo Oicosa no tenían nombre, la Comisión de Gobierno decidió en 1977 poner los nombres *Lañomendi*, *Kurutzagana* y *Kuskuburu* a las calles sin nombre que comenzaban en la calle *Zubilletas* (sic). En Loiu hay un monte llamado oralmente *Lañamendi*, seguramente debido a la etimología popular. El nombre no viene del nombre *laino* (nube), sino del nombre de caserío *Laina*.

## Laranjazubi Ikus/ Vid Larrañazubi.

## Laroa

(Aurkintza/ Paraje)

Ibarra etxearen aurkintza 1621ean ageri dena:

*yHeredad questa delante dela su cassa de ybaRa llamada Laroa que alinda con la Heredad de pº de ybaRa...*

Paraje de la casa Ibarra que aparece en 1621.

## Larrabide

(Etxea/ Casa)

Kaba kalean dagoen txaleta. Neotoponimoa da, baina euskal onomastikaren tradizioaren barruan kokatzen dena eta guztiz egokia alde horretatik.

Chalet de la calle Kaba. Es un neotopónimo, pero se sitúa dentro de la tradición de la onomástica vasca y es totalmente adecuada.

## Larrañazubi, Bolunzarretako zubia (-a)

(Zubia/ Puente)

Itxura guztiaren arabera leku-izen honen osagaiak *larrain* eta *zubi* dira, baina gauzak ez dira dirudien bezain argiak. *Larrañazubi* horrela oso berandu dokumentatu baitugu 1881ean. Urte hartan Baserri inguruko biztanleak kexu agertu ziren zubiaren egoeratik, baina lehenagoko aipuetan *Naranjazubi* (1857) eta *Laranjazubi* (1872) ageri dira. Tamalez, hauek ere gutxitan ageri dira, baina aipu hauek ikusita pentsa genezake oinarrian *laranja* fruitu arbola dugula eta herri etimologia dela medio aldatu dela izena. Oso interesgarria da 1881ean konpontzeko egin zen eskaria:

*"...Los que suscriben v[e]z[in]os de esta anteiglesia, en el barrio de Baserri exponen que hallandose destruido é intransitable, como es publico, el puente llamado Larrainya-subi, entre las casas llamadas Arzubiaga becoa y Jauregui argalena de esta jurisdiccion, como puente además del indicado serbicio comun, és con especialidad para el paso á la parroquia de la sitada Casa Jauregui argalena y a la vez como de la misma barriada, indispensable para los serbicios particulares, por este motivo, para que pueda haber transito y ebitar una desgracia de personas que tengan que transitar por el. Suplican se ordene se efectuen las obras necesarias".*



Larrañazubi • Errotazar

argazkia: UA

Azkenean, 1932an inguru hartako bidea konpondu zuten euria egiten zuenean ezin baitzen ibili. Bidea alde bietan igo zuten, urak gora egitean ez estaltzeko, eta kale egin. *Larrañazubi* izenaz gain ahoz *Bolunzarretako zubi* deitu izan da, nahiz eta azken izen hori idatzirik ez agertu.

Según todos los indicios los elementos de este nombre de lugar son *larrain* (era) y *zubi* (puente), pero las cosas no son tan claras como parecen. Hemos documentado la forma *Larrañazubi* muy tarde, en 1881. Ese año los habitantes de la zona de Baserri se quejaron por la situación del puente, pero en las primeras menciones aparecen las formas *Naranjazubi* (1857) y *Laranjazubi* (1872). Por desgracia, éstas también aparecen pocas veces, pero viendo estas menciones podemos pensar que en la base está el árbol frutal *laranja* (naranja) y que el nombre ha cambiado por influencia de la etimología popular. Es muy interesante la petición que se hizo en 1881 para arreglar el puente.

Al final, en 1932 se arregló el camino de la zona porque cuando llovía no se podía caminar por allí. Subieron el camino por los dos lados, para que no se cubriera cuando las aguas subían y la convirtieron en calle. Además del nombre *Larrañazubi* oralmente se le ha llamado *Bolunzarretako zubi*, aunque esta última forma no haya aparecido por escrito.

## Larrauri

Ahoz: *Larrauri*, *Larraurisarra* eta *Larrauribarri*.

(Etxebizitza/ Vivienda)

Getxoko Peruena (Perune) estratan kokatutako baserria. Izenaren osagaiak *larre*, "abereak bazkalteko belardiak", eta *uri* "hiri" dira. Gaur egun, *uri* hitzak etxe multzoa adierazteko balio badu ere, antzina *etxe* hitzaren sinonimoa zen, kasu honek argi adierazten duen bezala. *Larrauri* izeneko baserri asko dago Bizkaian honetaz gain, baina ez bairik gabe lekuri ezagunena gaur egun Mungia lotutako elizatea da. Jatorrizko *Larrauri* etxea 1616tik aurrera ageri da eta gaur egun *Larrauri* edo **Larraurizarra** esaten zaio XX. mendean eraiki zen *Larraubarri*-tik bereizteko. Jatorrizko *Larrauri* baserriaren lekuan txaleta dago gaur egun.

Etxe izen hau beste batzuen oinarria izan da, *-ondo* posposizioaz osatutako **Larrauriondo**, XX. mendean Kapitanena baserriaren zena, eta **Larraurisol**. Azken izen hau eta antzekoak sarritan erdaraz ematen dira "sus pertenecidos" aipuaren barruan.

Caserío situado en la estrada Peruena (Perune) de Getxo. Los elementos del nombre son *larre*, "prado en el que pastan los animales", y *uri* "ciudad". Aunque actualmente la palabra *uri* sirva para referirse a un grupo de casas, antiguamente era sinónimo de *etxe* (casa), como muestra claramente este caso que hay que traducir por "Casa de la dehesa". Hay muchos caseríos llamados *Larrauri* en Bizkaia además de éste, pero sin duda el sitio más conocido es la anteiglesia unida actualmente a Mungia. La casa original *Larrauri* aparece a partir de 1616 y hoy en día se le dice *Larrauri* o **Larraurizarra** para diferenciarla de *Larrauribarri* que se construyó en el siglo XX. En el lugar del caserío original *Larrauri* hoy en día hay un chalet.

Este nombre de casa ha sido la base de otros nombres: **Larrauriondo**, formado por la preposición *-ondo*, que pertenecía en el siglo XX al caserío Kapitanena, y **Larraurisol**. Este último nombre y similares en castellano se incluyen en la mención "sus pertenecidos".

## Larrazabal / Moreaga

Ahoz: *Morea*.

(Etxebizitza/ Vivienda)

*Larrazabal* izenaren osagaiak argiak dira, *larre* "abereen bazkalekua" eta *zabal* "hedadura handiko lekua" edo berriago "ordokia, inguru laua". Gauzarik deigarriena izen aldaketa izan da. *Larrazabal* izena desagertu eta *Moreaga* izena hasi zen erabiltzen. *Larrazabal* izena 1581ean aurkitu dugu lehenengo aldiz kaperatasun espediente batean eta *Moreaga* berriz oso berria da 1863an ageri baita. Ikus *Moreaga*.

Izen hau bera aurkitu dugu **Larrazabalbaso** toponimoan. Euskaraz oso arrunta da izen *berezi+baso* egitura etxe, auzo edo herri batek mendian landu gabe zituen eremuak izendatzeko, kasu honetan, Larrazabal baserriarenak direlarik. Sarritan, euskaldunon izena eta ofiziala bat ez zetozenean, lekuen euskarazko izenak horrelakoetan agertzen zaizkigu. *Abadiño* izenaren idatzitako "lekuko" ofizial zahar bakarra, esaterako, Oiz mendian dagoen *Abadiñobaso* toponimoa dugu. Gauza bera gertatzen da *Sopelabaso* izenarekin. Ez dakigu non zegoen leku hau baina litekeena da *Arnabar* baserriaren goiko aldean egotea.

Los elementos del nombre *Larrazabal* son claros, *larre* "prado, dehesa" y *zabal* "lugar de gran extensión" o más recientemente "llanura, zona plana". La cosa más llamativa ha sido el cambio de nombre. El nombre *Larrazabal* desapareció y empezó a utilizarse *Moreaga*. El nombre *Larrazabal* lo hemos encontrado por primera vez en 1581 en un expediente de capellanía y *Moreaga* en cambio es muy nuevo porque aparece en 1863. Vid *Moreaga*.

Hemos encontrado este mismo nombre en el topónimo **Larrazabalbaso**. En euskera es muy habitual la construcción *nombre propio+baso* (monte), para nombrar a las tierras sin cultivar que tenía un barrio o un pueblo en el monte, y en este caso pertenecen al caserío *Larrazabal*. Muchas veces, cuando el nombre usado por los habitantes y el oficial no era el mismo, los nombres en euskera sólo nos aparecen en esas formas. Por ejemplo, el único testimonio antiguo del nombre *Abadiño* es el topónimo *Abadiñobaso* situado en el monte Oiz. Ocurre lo mismo con el nombre *Sopelabaso*. No sabemos dónde estaba este sitio, pero es posible que estuviera en la parte de arriba del caserío *Arnabar*.

**Larrazabalaurrekoa** Ikus/ Vid *Moreagaurre*.

**Larrazabaletxebarria** Ikus/ Vid *Etxebarri*.

**Larrazabalostaikoa** Ikus/ Vid *Moreaga*.

## Lartitegi

(Etxebizitza/ Vivienda)

Usategi etxearen ondoan eraikitako etxea. Gaur egun ez dago. Ez dugu izena dokumentazioan eta itxuraz bildu, bakar bakarrik ahoz.

Casa construida junto a la casa Usategi. Actualmente no existe. No hemos recogido el nombre en la documentación, solamente de forma oral.



## Larrazabal

argazkia: UA

### Las Delicias

(Bainuetxea/ Balneario)

1919an Felipa Bustingorri andreak Areetako bainuetxean teilape bat eraikitzeko baimena eskatu zuen. *Las Delicias* izeneko bainuetxearen jabeak galdarak eta uhagak zeuden departamentu ondoan teilape bat eraiki nahi zuen ikatza gordetzeko eta beste erabilera batzuetarako. Aipatzekoa da *Las Delicias* izeneko auzo bat dagoela Barakaldon eta bere jatorrizko izena *Urgozo* dela.

En 1919 la señora Felipa Bustingorri pidió permiso para construir un refugio en el balneario de Las Arenas. El dueño del balneario llamado *Las Delicias* quería construir un refugio junto al departamento de las calderas y bombas de agua para guardar el carbón y para otros usos. Hay que indicar que hay un barrio llamado *Las Delicias* en Barakaldo y que su nombre original era *Urgozo*.

### Laukarika

(Etxea eta kalea/ Casa y calle)

1976an Javier Churruca Arellanok Basagoiti eta Algortako etorbideen artean (azken hau garai hartan *Avenida del Ejercito-Armadaren etorbidea*-zena) dagoen kaleari *Laukarika* izena emateko eskatu zuen, bere etxeak izen hori zeramalako, Algortako etorbideko zeharbidea (*Travesía de la Avenida de Algorta*) izen aldrebesaren orde. Udalak ontzat hartu zuen eskaera eta *Laukarika* ofizialdu zuen. Deigarria da orduko *Avenida del Ejercito*ren zeharkalea *Travesía de la Avenida de Algorta* izatea, antza denez, gerra irabazi zutenek izenak aldatzean izan zuten presarekin ez ziren kontraesan honetaz ohartu. Ez dugu izenaren gaineko daturik baina pentsa liteke **Laukarrika** izena izatea, gerra aurrean erabiltzen zen ikurdun *-r-* dela medio okerreko irakurketaren ondorioz aldatu dena hor zegoen etxea lau kalez inguratuta baitzegoen.

En 1976 Javier Churruca Arellano pidió que se llamara *Laukarika* a la calle situada entre las avenidas Basagoiti y Algorta (esta última en esa época se llamaba *Avenida del Ejército*), ya que su casa se llamaba así, en lugar del complejo nombre: *Travesía de la Avenida de Algorta*. El Ayuntamiento aceptó la petición y oficializó *Laukarika*. Es llamativo que la travesía *Avenida del Ejército* sea la *Travesía de la Avenida de Algorta*, al parecer, porque los que vencieron la guerra al cambiar el nombre con las prisas no se dieron cuenta de esta contradicción. No tenemos datos sobre el nombre, pero se puede pensar que sea el nombre **Laukarrika**, que ha cambiado por consecuencia de la lectura equivocada de la *-r-* con signo que se utilizaba antes de la guerra. De hecho, la casa estaba rodeada por cuatro calles.

## Ledo

(Etxebizitza/ Vivienda)

Deitura ezagunetik datorren izena. Galdemesen bada meatzariiek sortutako Ledo izeneko auzoa.

Nombre que viene del conocido apellido. En Galdames hay un barrio llamado Ledo creado por los mineros.

## Legarrevilla. Ikus/ Vid Arnabar.

## Leioako etorbidea (-a)

(Etorbidea/ Avenida)

Kale honen izenaren ibilbidea deigarria da. Sortu zenean, 1911 inguruan, *Avenida de Lejona* izena zuen. Errepublikara garaietan, baina data zehatza jakin gabe, ez baita agiria agertu *Aburto* izena eman zioten, 1917-1920 bitartean herriko alkatea izan zen Eduardo Aburto (Bilbo 1864-Madril 1941) omentzeko. Faxistek Getxo hartu eta berehala, 1937ko uztailean, izena aldatu eta *Avenida de Lejona* jarri zioten atzera. 1999an Udalak zuzendu zuen eta *Leioa* jarri, hori baita elizatearen izena. Eduardo Aburto Neguriko *Ergoyen* txaletan bizi izan zen eta Rafael semea arkitekto ezagunaren aita da. Eduardo injinerua izan zen eta hainbat enpresa sortu edo partaide izan zen bai Bizkaiko eta baita Saguntoko Labe Garaietan ere. Gerra heltzean Biarritzera alde egin behar izan zuen. Bera alkate zela onartu zen Faduran kiroldegia egitea.

La evolución de este nombre de calle es llamativa. Cuando se creó, alrededor de 1911, se llamaba *Avenida de Lejona*. En la época de la República, pero sin fecha concreta, ya que no ha aparecido el documento, se le llamó *Aburto*, en homenaje a Eduardo Aburto (Bilbao 1864-Madrid 1941) que fue alcalde del pueblo en los años 1917-1920. Poco tiempo de que los fascistas tomaran Getxo, en julio de 1937, cambió de nombre y le pusieron el nombre *Avenida de Lejona* de nuevo. En 1999 el Ayuntamiento lo corrigió y le pusieron *Leioa*, porque ese es el nombre de la anteiglesia. Eduardo Aburto vivió en el chalet *Ergoyen* de Neguri y es el padre del conocido arquitecto Rafael Aburto. Eduardo fue ingeniero y creó o participó en muchas empresas en Bizkaia y en Sagunto. Cuando llegó la guerra tuvo que huir a Biarritz. Siendo él alcalde se aprobó la construcción del polideportivo de Fadura.

## Lexartza (Lejarza)

(Etxebizitza/ Vivienda)

Etxe hau Karitate kalean zegoen eta 1989an bota egin zuten. Izena Galdames, Izurtza eta Markinako jatorria duen jabearen deitura besterik ez da. Gogoan izan behar da euskal izen honen idazkera egokia *Lexartza* dela, osagaiak *lexar* (*Fraxinus excelsior*, euskara batuaz "lizar") eta *-tza* ugaritasun atzizkia direla.

Esta casa estaba en la calle Caridad y la demolieron en 1989. El nombre es el apellido del dueño, originario de Galdames, Izurtza y Markina- Xemein. Hay que recordar que la forma escrita correcta de este nombre en euskera es *Lexartza*, siendo los elementos el nombre *lexar* (*Fraxinus excelsior*, "lizar" en euskera estándar -fresno-) y la preposición de abundancia *-tza*.

## Lekueder

(Etxebizitza/ Vivienda)

Neguri inguruan arrunta izan zen eraikitako txaletak euskal izena izatea, esangura aldetik hain gardena den kasu honetan bezala. 1959an Portuko paseoko *Lekueder* txaleta, lehenago *Zaballaren* etxea izandakoa, eskola-etxe bihurtu zuten. *Zaballa* izena, izatez, Barakaldo nahiz Aiaratik datorren deitura da eta osagaiak *zabal* eta artikulua dira. Tartean azaltzen den *-ll-* horren arrazoia mendebaldeko erromanizazioen eragina izan liteke, palatalizazio hori Ibaizabal ibaiaren mendebaldean baino ez da agertzen eta.



En la zona de Neguri fue habitual que los chalets tuvieran nombre en euskera, como en este caso tan claro. En 1959, el chalet llamado *Lekueder* del paseo del puerto, que había sido anteriormente la casa de *Zaballa*, fue convertida en casa escuela. El nombre *Zaballa* es un apellido originario de Barakaldo o Aiara, y los elementos son *zabal* (ancho o llano) y el artículo. La razón de la *-ll-* entre vocales puede ser la influencia de los romances de la parte occidental, ya que esa palatalización sólo aparece en la parte occidental del río Ibaizabal.

## Lertegi

(Etxebizitza/ Vivienda)

Zugatarte eta Negubide kaleen artean kokatutako txaleta. Neotononimo itxura du eta osagaiak *ler*, "piñu gorria" (*Pinus sylvestris*), eta *-tegi* atzizkia izan daitezke. 1935ean Sustapen batzordeak kale izendegia atontzeko lanak hasi eta, besteak beste, *Calle de los Puentes* izeneko kalearen zati bati *Lertegui* kalea ipintzea proposatu zuen, ondoan zegoen etxearen izena hartuta. 1999an, izendegia aztertzean, etxe horren jabeek erabiltzen zuten eta egokiago den *Lertegi* idazkera hobetsi zen.

Chalet situado entre las calles Zugatzarte y Negubide. Tiene aspecto de neotopónimo y los elementos pueden ser *ler*, "pino rojo" (*Pinus sylvestris*), y la preposición *-tegi*. En 1935 la Comisión de Fomento comenzó los trabajos de acondicionamiento del callejero, y entre otras cosas propusieron llamar *Lertegui* a un trozo de la calle llamada *Calle de los Puentes*, tomando el nombre de la casa que estaba al lado. En 1999, al analizar el callejero, se optó por la forma *Lertegi* que utilizaban los dueños de la casa y que era más adecuada.

## Lexarreta

(Ingurua/ Zona)

Historian zehar **Lexarreta** auzoa, zubia eta bidea izan bada ere gaur egun kalea besterik ez da auzoari gaur egun **Neguri Langile** esaten baitzaio. 1894an inguruko biztanleek *Lexarreta* eta *Errotazar* artean Gobela ibaia zeharkatzeko zubi bat eraikitzeke eskaera egin zuten, zubi bakarra Leioakoa izanik, neketsua baitzen ibaiaz bestaldera joatea. XX. mendearen hazkundearekin ingurua etxez estali zen eta Neguri auzoaren ondo-ondoan zegoenez, izen hori hartu zuen, txaleten ingurunetik bereizteko "langile" erantsirik. Gaur egun, zubiaz gain izen hau duen kale bat dago auzoan. 1933an **Lexarretabideari Eukaliptu** bidea (*Calle Eucalyptus*) izena eman zitzaion bertan zeuden zuhaitzak direla eta. Izena era desberdin askotan ageri da idatzita *Lexarreta*, *Lejarreta*, *Lejarretas* eta *Letzarretas* (1932). Gaztelaniaz *-x-* soinua desagertzean *-j-* bihurtu zen *Muxika* edo *Elexalde* izen ezagunetan ikus daitekeen bezala. Geroago Getxon hain arrunta den *-s* gehitu zioten eta azkenik *Letzarretas* idazkera asmo etimologikoz egindako berreraiketa okerra dugu.

Aunque a lo largo de la historia haya habido un barrio, un puente y un camino llamados **Lexarreta**, actualmente sólo es una calle, ya que al barrio hoy en día se le dice **Neguri Langile**. En 1894 los vecinos de la zona pidieron que se construyera un puente para atravesar el río Gobela entre *Lexarreta* y *Errotazar*, pues siendo el de Leioa el único puente existente, era difícil cruzar el río. En el siglo XX la zona se llenó de casas y como estaba junto al barrio de Neguri, tomó ese nombre, añadiendo el elemento "langile" (trabajador) para diferenciarlo de la zona de chalets. Actualmente, además del puente hay una calle con ese nombre en el barrio. En 1933 a **Lexarretabidea** se le puso el nombre *Calle Eucalyptus* por los árboles que allí había. El nombre aparece escrito de formas diferentes: *Lexarreta*, *Lejarreta*, *Lejarretas* y *Letzarretas* (1932). Cuando desapareció el sonido *-x-* en castellano, se convirtió en *-j-* como puede comprobarse en los conocidos nombres de *Muxika* o *Elexalde*. Más tarde le añadieron la *-s* tan habitual en Getxo y por último la forma *Letzarretas* es una reconstrucción realizada con intención etimológica.

## Lezesolo

(Soroa/ Huerta)

Izen gardena, *leze* "haitzuloa" eta *solo* hitz arruntez osatuta. Soro hau Andra Mariaren elizaren aurrean zegoen.

Nombre claro, formado por los nombres comunes *leze* (sima) y *solo* (huerta). Esta huerta estaba enfrente de la iglesia Andra Mari.

## Lezeta

Ahoz: *Leseta*.

(Etxebizitza/ Vivienda)

Getxo auzoan kokatutako etxea, Perunetik gertu. Izenaren osagaiak *leze* ("haitzuloa, kobazuloa") eta ugaritasuna edota lekua adierazten duen *-eta* atzizkia dira. 1614tik aurrera ageri zaigu etxe hau, *Leçeta*, *Leceta* eta *Lecetta* idatzita eta 1928an ageri da *Lecetas* moduan gaztelaniaz ohikoa den amaierako *-s* gehituta. Etxea, inguruko asko bezala, erorita dago aspaldian ez baita inor bizi bertan.

Casa situada en Getxo, junto a Perune. Los elementos del nombre son *leze* ("sima") y la preposición de abundancia o lugar *-eta*. La casa aparece a partir de 1614 escrita como *Leçeta*, *Leceta* y *Lecetta* y en 1928 aparece como *Lecetas* con la *-s* habitual del castellano. La casa, como muchas de la zona, se cayó hace mucho y allí no vive nadie.

## Linduena (-a)

(Etxebizitza/ Vivienda)

Etxe-izen hau *lindu* hitz ezezagunaz eta *-ena* atzizkiarekin osatuta dago. Lehenengo aldiz 1760an aurkitu dugu eta 1881ean *Linduene* moduan ageri da. 1884an, azkeneko aldiz dokumentatu dugunean, Algortako 42 zenbakia zuen eta bere lurren artean *Atxekolandeta* inguruan lurrak zituen.

Este nombre de casa está formado por el nombre desconocido *lindu* y la preposición *-ena*. Hemos encontrado este nombre por primera vez en 1760 y en 1881 aparece como *Linduene*. En 1884, cuando lo hemos documentado por última vez, tenía el número 42 de Algorta y entre otras tenía tierras en la zona *Atxekolandeta*.

## Lope de Vega

(Kalea)

Lope de Vega idazle ezagunari eskainitako kalea. Aipagarria da Lopek 1615ean idatzitako *Los Ramilletes de Madrid* izeneko antzezlan komikoan euskarazko kantua erabiltzea:

*Zure begi ederrok, ene laztana (tus bellos ojos, cariño mio)  
kautibaturik nabe, libre nintzala. (me tienen cautivo aun siendo libre)*

Calle dedicada al conocido escritor Lope de Vega. Es llamativo que en la pieza de teatro escrita por el autor en 1615, llamada *Los Ramilletes de Madrid*, se utilice una canción en euskera.

## Lopetxena (-a), Alkonena (-a), Kolejianena (-a)

Ahoz: *Lopetxene*.

(Etxebizitza/ Vivienda)

1963an erori zen Martikoena kalean zegoen etxe honen teilatua eta azkenean guztiz bota behar izan zuten. Izenaren osagaiak *Lopetz* deitura patronimikoa eta *-ena* atzizkia dira. Nahiz eta jende askok, oker, *Lopetz* gaztelaniazko deitura dela uste, ez da horrela eta euskal deitura ere bada. Erdi Aroan Euskal Herrian, batez ere Hegoaldean, ohikoa izan zen *-itz/-iz* atzizkia eta honen aldaerak diren *-etz/-ez* erabiliz patronimikoak erabiltzea. XVI. mendetik aurrera deiturak egungo eran finkatzean patronimiko hauen erabilera urritu zen Euskal Herri atlantikoan, baina osasuntsu gorde zen Lautadan eta Nafarroan, batez ere Estellerrian, non oso ugariak diren patronimiko+toponimoak osatutako deiturak: *Lopez de...*, *Martinez de...* Izen honen beste etimologia *Lopetxo* txikigarria dateke, baina ez dugunez *\*Lopetxoena* modukorik behin ere aurkitu baztertu behar dugula uste dugu. 1774an *Colegialena* izenaz ageri da (...*la Casa de Colegialena alias Lopechena...*) baina handik aurrera beti *Lopechena*. Duen beste izena, **Alkonena**, deigarria da. Erandion ere, Astrabuduan, izen hori duen etxea ere bada. Ondorioz, pentsatzekoa da *Alkon* ezizena ohikoa zela inguru honetan.

El tejado de esta casa situada en la calle Martikorena se cayó en 1963 y al final la demolieron completamente. Los elementos del nombre son el apellido patronímico *Lopetz* y la preposición *-ena*. Aunque mucha gente piensa equivocadamente que *Lopetz* es un apellido castellano, no es así, y también es un apellido eusquérico. En la Edad Media en el País Vasco, sobre todo en la parte sur, fue habitual utilizar patronímicos formados por la preposición -



**Lezeta**

argazkia: Lezetarrak

*itz/iz* y su variante *-etz/-ez*. A partir del siglo XVI, cuando se fijaron los apellidos con la forma actual, la utilización de estos patronímicos se redujo en el País Vasco atlántico, pero se conservó en la Llanada y en Navarra, sobre todo en Tierra Estella, donde son muy habituales los apellidos formados por el patronímico+topónimo: *Lopez de...*, *Martinez de...* Otra etimología de este nombre puede ser el diminutivo *Lopetxo*, pero como no hemos encontrado formas como *\*Lopetxoena* ni una sola vez, creemos que hay que rechazarlo. En 1774 aparece con el nombre *Colegialena (...la Casa de Colegialena alias Lopechena...)*, pero a partir de entonces siempre *Lopechena*. Su otro nombre, **Alkonena**, es llamativo. En Erandio, en Astrabudua, también hay una casa con ese nombre. Por lo tanto, se puede pensar que el apodo *Alkon* fue habitual en esta zona.

## Lora Barri

(Etxebizitza/ Vivienda)

Baserri inguruan Bolunzarreta baino lehenago 1947an eraikitako etxea.

Casa construida en 1947 antes de Bolunzarreta, en la zona de Baserri.

## Lorenzo Areilza

(Kalea)

Lorenzo Areilza abokatua (Bilbo, 1855-1938) Bilboko abokatuen elkargoko dekanoa izan zen.

El abogado Lorenzo Areilza (Bilbao, 1855-1938) fue decano del colegio de abogados de Bilbao.

## Los Dos Amigos

(Etxebizitza/ Vivienda)

Jose Martin de Arispe eta Robustiano de Larraondo lagunek 1897aren inguruan eraiki zuten etxea Andresakoneta inguruan, 47. zenbakian. Erdarazko izen honek argi adierazten duen bezala osagaiak erdarazko *dos* ("bi"), *amigos* ("lagun") eta artikulua plurala dira.

Los amigos Jose Martin de Arispe y Robustiano de Larraondo construyeron una casa alrededor de 1897 en la zona Andresakoneta, en el número 47. Como se puede ver claramente en este nombre en castellano los elementos son *dos*, *amigos* y el artículo plural.

## Lubarria,-a

(Soroa/ Huerta)

Ezin dugu zehatz-mehatz jakin hemen biltzen diren aipu guztiek leku bat edo gehiago izendatzen ote duten, "lubarri" hitz arrunta baita. Nahiz eta Bizkaiko leku batzuetan itxitura bokalikoa dela-eta, euskara estandarrean bezala *luberrri* ere esan, Getxon ez da horrelakorik bildu 1638an lehenengo aldiz ageri denetik 1791 arte.

No podemos saber exactamente si todas las menciones que se recogen aquí se refieren a un único sitio o a varios, pues el nombre "lubarri" (rotura) es una palabra común. Aunque en algunos lugares de Bizkaia a raíz del cierre vocálico también se diga *luberrri* como en el euskera estándar, en Getxo no se ha recogido una forma así desde la primera vez que aparece en 1638 hasta 1791.

## Lucero

(Kalea)

1977an emandako izena. Lucero nahiz *Punta Lucero* lurmuturra eta mendixka Abraren bestaldean daude, Zierbenan. Deigarria da adinekoek Zierbenan eta Castron *Lusero* esatea lurmutur honi eta ez *Lucero*.

Nombre dado en 1977. El cabo y la colina *Lucero* o *Punta Lucero* están en la otra margen del Abra, en Zierbena. Es curioso que en Zierbena y Castro las personas de más edad llamen *Lusero* a este cabo, y no *Lucero*.

## Luis López Osés

(Kalea)

Luis López Osés (Getxo, 1925-1974) Romo auzoko *Casas Baratas* etxaldeko buru eta zinegotzia izan zen.

Luis López Osés (Getxo, 1925-1974) fue jefe de las *Casas Baratas* del barrio de Romo y concejal.

## Lukitegialde

(Soroa/ Huerta)

*Luki* hitza, batez ere Uriben erabiltzen da, *azeri* hitzaren orde. *Luki* izen hori latinezko *Lucio* pertsona izenetik dator; *Lukitegi* "azerizulo" da eta azken osagaiak *-alde* posposizioa. European ohikoa da azeria izendatzeko pertsona izenak erabiltzea, abere hori ezin zelako bere izenaz aipatu, horrela "deitzen" baitzen, Deabruarekin gertatzen zen bezala. Hori dela eta, euskaraz *luki* ezezik latineko *acenarius* izenetik datorren *azeri* dugu, frantsesez Renard edo Penintsulako hainbat lekutan *García* ditugun moduan.

La palabra *luki* (zorro) aparece sobre todo en Uribe, en lugar de la palabra *azeri*. El nombre *luki* viene del nombre de persona latino *Lucio*; *Lukitegi* es "madriguera de zorro", y el último elemento es la preposición *-alde*. En Europa es habitual que se utilicen nombres de persona para llamar al zorro, ya que para denominar al animal puesto que usar su nombre, era invocarle, como ocurría con el diablo. Por esa razón, en euskera tenemos la forma *luki* y la forma *azeri* proveniente de la forma latina *acenarius*, así como en francés tenemos Renard y en muchos sitios de la Península tenemos *García*.

## Madarisolo

(Kalea)

1936an Sustapen batzordeak izendatutako kalea. Izenaren osagaiak *madari* fruitu arbola eta *solo* hitza dira. Behin baino ez badugu aurkitu litekeena da ahoz bildutako toponimoa izatea.

Nombre de calle puesto por la Comisión de Fomento en 1936. Los elementos del nombre son el árbol frutal *madari* (peral) y el nombre *solo* (huerta). Como sólo lo hemos encontrado una vez, puede ser que se trate de un topónimo recogido oralmente.